



ADIERAZPENA

COVID-19aren egungo pandemiak **Espaniako milioika pertsonaren babesgabetasun ekonomiko eta soziala areagotu du.**

Dokumentu hau sinatu dugun erakundeok uste dugu **babesgabetasun egoera handiengan dauden pertsona guztiek Gutxieneko Errenta bat izan behar dutela bermatuta, bitzitza modu duinean garatu ahal izateko.** Ezinbesteko baldintza da, **zailtasun handienak dituzten pertsona eta familiek beren beharrianak estali eta bizi diren gizarteari ekarpena egin ahal izateko.** Beraz, funtsezkoa iruditzen zaigu pobrezia egoerak larriak eta gizarte-bazterkeria egoerak gainditu ahal izateko.

Gizarte Eskubideen Europar Oinarriaren arabera, gutxieneko errenta bitzitza duina bermatzeko prestazioa da. Gainera, baliabide nahikorik ez duen edozein pertsonaren eskubidea diren ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko aukera bermatzen du.

Estatu mailako Gutxieneko Errenta onuragarria izango litzateke pandemiaren aurretik prekaritate handiko egoeran zeuden pertsonentzat. Orain, gainera, **COVID-19aren ondorioz pobrezia-atalasearen azpitik kokatu diren pertsona guztiak ere hartu behar dira kontuan.**

Gaur egun, ia 600.000 familia daude diru-sarrera nahikorik gabe. Gogoan hartu behar da, **gainera, pandemiaren aurretik herritarren % 26a pobrezia eta gizarte-bazterkeria egoeran bizi zela Espainian; eta 2,5 milioi pertsona baino gehiago pobrezia larrian zeudela.**

Diru-sarrera egonkor eta kudeatzeko erraza izateak **errealitate hori bizi duten pertsonen gizarteratze-prozesua berraktibatze** aukera emango luke. Zentzu horretan, uste dugu **Estatu mailako Gutxieneko Errenta bateragarria izan daitekeela Autonomia Erkidegoetako diru-sarrera sistemekin.** Gutxieneko oinarri bat ezarriko genuke, eta autonomia mailan hori handitu ahal izango litzateke, bakoitzaren irizpideen arabera.



Tresna horren bidez **pobreziatik irteteko eskubidea bermatu behar dela uste dugu, funtsezkoa baita pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko**; baina diskurtso hau **polarizazio soziala** sustatzeko ere erabiltzen da: **gorrotoaren eta aporafobiaren diskurtsoa**. Errenta horren onura jaso lezaketen pertsonen aurkako aurreiritzi eta diskriminazioak handitzen ari dira.

Ezin dugu atzerapausorik eman pobrezia arriskuan dauden pertsonen oinarritzko eskubideen defentsan, ezta beren duintasunaren defentsan ere.

Horregatik, aurreiritziek eta gorrotoak helarazten duten irudi faltsuari aurre eginez, argi utzi nahi dugu proposatzen ari garen gutxieneko errenta ez dela gastu bat, baizik eta gizarteratzeko eta garapen ekonomiko iraunkor bat bultzatzeko inbertsioa. Eraginkortasun ekonomikoko neurri bat da. Hasiera batean, babesgabetasun handiko egoeran dauden pertsonen oinarritzko beharizanak estaltzeko balioko du, eta epe erdi eta luzera **pertsonen egonkortasun ekonomikoa eta ongizatea bideratzeko, pertsona horiek beren giza kapitalaren gehieneko potentziala lortzeko.**

Gizarte ekintza eta garapenerako lankidetzaren arloko Espainia osoko erakundeok aldarrikatu nahi dugu gutxieneko errenta bat funtsezkoa dela garapen indibidual eta familiarerako. Estatu mailako Gutxieneko Errentak ezaugarri hauek bete behar ditu:

- **Pobrezia larria desagerrarazi eta pobrezia errepikakorra murriztea**, diru-sarrerarik ez duten edo pobrezia-atalasearen azpitik kokatzen diren sarrerak dituzten familiei egoera hori atzean utzi ahal izateko errenta bat emanez.
- **Haurren pobrezia desagerraraztea**. Horretarako, seme-alaba bakoitzeko osagarri bat emango litzateke, pobrezia-atalasearen azpitik dauden etxe guztietan.
- **Pobrezia egoeran dauden familientzako etxebizitza duin bat bermatzea**, etxebizitza osagarri baten bidez, etxebizitza egokirik ez daukaten kasuetan.
- **Gizarteratzea sustatzea, ibilbide soziolaboral pertsonalizatuak ezarriz**. Genero ikuspegia txertatu beharko da, lan egiteko moduan dauden onuradunak lan merkatuan barneratzeke.
- Sistema arin eta erraza izan behar da, hala behar duten pertsonak eskaera prozesua burutu ahal izateko, dena ondo ulertzeko moduan, eta eragozpen burokratikorik gabe.



Gizarte-bazterkeria eta desberdintasun egoerak arazo sakonak eta dimentsio askotarikoak dira Espainian. Horiek desagerrarazteko ekintza politiko sendoa behar dugu. Ekintzak modu positibo eta eraginkorrean finkatu behar ditugu, milioika pertsonaren bizimodua aldatzeko. **Estatu mailako Gutxieneko Errenta inoiz baino beharrezkoagoa da.**

Jarri zure aurreiritziak berrogeialdian. **Pertsona guztiek bizitza duina izateko beharrezko diru-sarreren eskubidea defendatzen dugu. Pobreziaren aurka aktibatuko gara.**

#GutxienekoErrentaBai

BAT EGITEAK: